

IKASTOLAK – EAE - Zerbitzu publikoak

## MAHAI NEGOZIATZAILEA: LANGILEON ESKAKIZUNEK ERANTZUNIK GABE JARRAITZEN DUTE

**Urtarrilaren 12ko Mahai Negoziatzailean Ikastolen Elkarteak eta EIBk ez diete langileen eskakizunei inongo erantzunik eman. Ikastolek negoziatzeko edukirik aurkeztu gabe Lan-hitzarmeneko negoziazioa kinka larrian jarri dute, egoera aldatu ezean, ikastoletako langileria mobilizatzerara deituko dugu.**

Ikastolen Elkarteak eta EIBek **alde bakarrez aplikatu dituzten lansari igoerak KPItik oso azpira jarraitzen dute**. Bestalde, **hezkuntza publikoko langileen lansarien ekiparazio bidean ez dago urratsik**.

**Gainerako ataletan ere ez dago aurrerapenik:** lan kargaren jaitsierari buruzko eskakizunak erantzunik gabe jarraitzen dute; aurreko krisian aplikatu ziren murrizketak kitatu dituzte, 2011ko zorra izan ezik, ez baitute beregain hartu; ez dute baimen eta lizentzien gainean hitz egin nahi; erretiro aurreratu duinagorako formulak esploratu gabe jarraitzen dute. Horiek guztiek **negoziazio mahaia kinka larrian jarri dute**.

Bestalde, berriz eskatu dugu **EIBko ikastoletan** meritu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan oinarritutako **langileen sarbide gardena Kontratazio Batzordeen bidez arautzea**.

**Errelebo kontratuari** dagokionez, EHIk errelebo kontratuen gainkostua finantzatzen duen diru-laguntza agindua argitaratu ez arren, baldintzak dituzten ikastoletan kontratu horiek egiteko aholkua eman du.

Bukatzeke, **gogor salatu nahi dugu abenduan zehar, gutxienez, bi ikastoletan eman diren bi Hezkuntza Laguntza Espezialisten kaleratzeak**.

**Hurrengo mahai negoziatzaile baterako datarik gabe amaitu zen bilera**. Ikastolek mahaian edukirik aurkezten ez badute, langileak mobilizatzerara deituko ditugu.

**“Ikastolek aplikatutako lansari igoerak KPIaren oso azpitik daude (...) Hezkuntza publikoko langileen lansarien ekiparazio bidean ez dago urratsik”**

**“EIBko ikastoletan langileen sarbide gardena arautuko duen Kontratazio Batzordeak eratzeko eskatu dugu.”**

**“Bi HLEn kaleratzea gogor salatzen dugu.”**

### LAB IKASTOLETAKO LANGILEEN DEFENTSAN BORROKAN!!! JO TA KE LAN-BALDINTZA DUINAK IZANGO DITUEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA ESKURATU ARTE!!!

Ikastolakgipuzkoa@lab.eus  
ikastolakgipuzkoa1@lab.eus  
ikastolabizkaia@lab.eus  
ikastolabizkaia1@lab.eus  
ikastolakaraba@lab.eus  
ikastolaknafarroa@lab.eus

666779156  
666775746  
674137953  
674137908  
666774912  
679146404

>irakaskuntza

